



ALBOAN
www.alboan.org

Lana: lan egiteko beste modu batzuk, gizarte humanoagoak lortze aldera?



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Lana: lan egiteko beste modu batzuk,
gizarte humanoagoak lortze aldera?**



ALBOANek *'Garapenerako aldaketarako prozesuak. Hausnarketa eta praktika'* mintegi iraunkorrean sustatutako hausnarketa zabal baten parte da koaderno hau. Xedea da gaur egun gertatzen ari diren aldaketa-prozesu sozialei buruz eztabaidatzea, baita bidegabekeria eta berdintasun eza sortzen dituen logika ekonomikoa eraldatzen laguntzeko moduari buruz eztabaidatzea ere. Helburu horretara zortzi saio bideratu genituen, 2016ko otsailetik eta 2017ko otsailera bitartean. Horietan, Euskadiko askotariko esparruetako pertsonen parte-hartze paregabea izan dugu: gizarte-esparrua (ekonomia solidarioko eta nazioarteko lankidetzako erakundeak), unibertsitatea, enpresak eta Administrazioa; horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, agertutako konpromisoagatik eta lankidetzagatik.

Koaderno honen gaia, lanari buruzkoa, landu zen Mintegi honen saioetako batean Imanol Zuberoren hasierako aurkezpenarekin. Koadernoko hausnarketek egilearen iritzia eta parte-hartzaileen ideiak hartzen dituzte barne.

Imanol Zubero. Soziologian doktorea da, Deustuko Unibertsitatean. Irakasle titularrak da, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean. CIVERSITY-Hiria eta dibertsitatea (<http://civersity.net>) ikerketa-taldearen arduraduna da. Zubero (<http://imanol-zubero.blogspot.com.es>) eta Oficio de Sociólogo (<http://oficiodesociologo.blogspot.com.es>) blogak argitaratu ditu.

Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboan@alboan.org
www.alboan.org

Egilea: Imanol Zubero

Data: 2017

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi, S.A.

ISBN: 978-84-947153-2-7

Lege-gordailua: BI-1925-2017

Se autoriza la reproducción parcial de esta obra, siempre que ésta no tenga fines comerciales y la fuente sea citada.

Aurkibidea

1. Kezkak eragindako gogoeta	5
2. «Lana» diogunean, zer adierazi nahi dugu?	9
3. Enpleguak ez al du jada ahalmen integratzailea?	15
4. Ba al dago enplegua ez den beste integratzaile sozioekonomiko unibertsalik? Ba al dado gizarte-integrazioa bultzatu edo sustatuko duen beste lan egiteko modurik?	21
5. Posible al da enplegua sortzen jarraitzea, justizia globala kontuan hartu gabe? (termino sozialetan eta ingurumen-terminotan)	27
6. Gogoetan eragina izan duten tirabirak	29

1. Kezkak eragindako gogoeta

Une historiko batean ekin diogu gogoeta egiteari, eta une historikoa diogu ezau-garri bereizgarri jakin batzuk dituen uea delako: azken krisia eta krisi horrek enpleguan eragindako ondorio negatiboak, eta ziurgabetasun-giro orokorra lanaren etorkizunarekiko eta horri lotutako eskubideen eta segurtasunen multzo guztiarekiko.

Egia da ez dela lehenbizikoz gertatzen. Are gehiago, egoera latzagoko garaiak izan dira. Hurrengo grafikoan ikusten denez, 1985eko maiatzetik 1997ko apirilera bitartean, ia gehiengoaren iritzi langabezia zen arazo larriena; ehunekoen kopuruak ikusi besterik ez dago: Espainiako biztanleen %87tik %94ra adierazi zuen iritzi hori. Langabeziak gehien kezkatzen zuen herritarren kopurua behera egiten hasi zen 1997ko apirilaz geroztik, eta, batik bat, 2000ko apiriletik aurrera; hala, 2007ko irailean %35ek adierazi zuen langabeziak eragiten ziela kezkarik handiena. «2008ko gainbeherak» –hala esan diote 2008ko krisiari Miguel Ángel Lorente eta Juan Ramón Capella adituek analisi aitzindari eta guztiz egoki batean– eragin zuen berriro ere langabeziarekiko kezka orokortzea, nahiz eta ez zuen 80ko eta goeko hamarkadetan bezain beste eragin, eta kezkak behera egin du gaur egunera arte.

M. A. Lorente eta J. R. Capella, *El crack del año ocho: La crisis; El futuro*, Trotta, Madril 2009.

Gehiago irakurri nahi izanez gero:

L. Sanzo, «Soldata-krisia, langabezia eta desberdintasunak».

<http://www.euskadi.eus/web01-azogaeko/es/k86aEkonomiazWar/ekonomiaz/abrirArticulo?idp ubl=83®istro=8>


M. Laparra eta B. Pérez Eransus, *Krisia eta gizarte-haustura European*.

https://obrasocial.lacaixa.es/deployedfiles/obrasocial/Estaticos/pdf/Estudios_sociales/vol35_es.pdf

P.J. Gómez eta R. Molero, *Europar pobretuak: desberdintasunaren areagotzea eta gizarte-bazterketa 15en EBn, eta haren eragileak*.

http://www.foessa2014.es/informe/uploaded/documentos_trabajo/15102014153122_6287.pdf

Espainian arazo larrienetako bat langabezia dela uste duten pertsonen ehunekoaren bilakaera (erantzun anitzeko galdera). 1985eko maiatza-2017ko apirila



Iturria: CIS (http://www.cis.es/cis/export/sites/default/Archivos/Indicadores/documentos_html/TresProblemas.html). Geuk egina.

Enpleguaren egungo krisiaz gehiago jakiteko:

J. Bacaria, J. M. Coll eta E. Sánchez-Montijano, Lan-merkatua Espainian: arazoak, erronkak eta etorkizuneko joerak.

https://www.social-inclusion-monitor.eu/uploads/tx_itao_download/EZ_Policy_Brief_SIM_Europe_ES_2015_03.pdf

Max Weber institutua, Etorkizuna belaunaldia galdu gabe: Espainiako gazteen egoerari buruzko azterketa.

<http://www.injuve.es/sites/default/files/2013/23/publicaciones/UnFuturoSinGeneracionPerdida.pdf>

I. Ramonet, «Etorkizuneko belaunaldia».

<http://www.monde-diplomatique.es/?url=editorial/0000856412872168186811102294251/editorial/?articulo=fco825cc-f54a-4a41-aa81-844a4fa9fdeb>

Hala ere, Espainiako arazo handienetako bat langabezia dela uste dutenen kopuruak behera egitea (horren arrazoa izan daiteke, neurri handi batean, krisi-urteetan jende askorentzat kezka-iturri nagusiak beste arazo batzuk izatea, hala nola, korrupzioa eta iruzurra, edo politikaren funtzionamendua) bat dator enpleguaren gaiarekiko gero eta orokorragoa den sentsazioarekin, hau da, egoera erabat aldatzen ari delako sentsazioarekin. Aldaketa horren joerak dira, besteak beste, gazteen langabezia-tasa handiak («belaunaldi galdua» ere esan izan zaio) edukitzea, lan-merkatuaren dualtasuna eta prekarietatea nagusitzea, eta iraupen luzeko langabezia finkatzea. Hori hala delako seinale da jende askok duen iritzi triste bat, Ignacio Ramonet kazetariak honela adierazi duena:

«Joan den mendetik lehenbizikoz, Europan, belaunaldi berriek beren gurasoek baino bizi-maila kaskarragoa izango dute. Prozesu globalizatzaile neoliberalak herriak basati egiten ditu, herritarrak umiliatu egiten ditu, gazteak etorkizunik gabe uzten ditu. Eta finantza-krisiak, erdi-mailako klaseen eta xumeen aurka eragina duten “konponbide” gogorrez baliatuta, ezinegon orokorra gaiztotzen du».

Hori gutxi ez, eta, gainera, bada oso orokortuta dagoen beste kezka bat, bai prentsan bai literatura zientifikoan oso agerikoa dena: milioika enplegu automatizatzeak edo robotizatzeak etorkizunean enpleguan izan dezakeen eraginaren (kopuruan zein kalitatean) ondorioa.

Duela urtebete eman zuen argitara ELGEk *The Risk of Automation for Jobs in OECD Countries* (Lana automatizatzearen arriskua ELGE erakundeko kide diren herrialdeetan) izenburuko azterlana. Han jasotakoaren arabera, robotizazioaren edo automatizazioaren bidez lanpostu-kopuru handien ordeztu daitezkeen hiru herrialdeetako bat Espainia da, Austria eta Alemaniarekin batera; zehazki, lanpostuen %12. Hura baino lehen Oxfordeko Unibertsitateko Carl Benedikt Frey eta Michael A. Osborne ikertzaileek 2013an argitaratutako beste azterlan baten arabera (*The Future of Employment: How Susceptible are Jobs to Computerisation?*), Ameriketako Estatu Batuetan egun dauden enpleguen %47 arriskuan egon daitezke oso etorkizun hurbilean, automatizatzeak aukera handia dutelako.

Massachusettseko Teknologia Institutuko (MIT, ingelesez) Erik Brynjolfsson eta Andrew McAfee ekonomialariek ohartarazi dute «Berregituraketa Handi» baten lehenbiziko faseetan gaudela, non aldaketa teknologikoaren bizkortzeak are gehiago

polarizatuko baitu lan-merkatua langileen kualifikazioaren arabera. Horren haritik beretik, George Mason Unibertsitateko Ekonomia katedradun eta *The New York Times* egunkariko kazetari Tylor Cowen-ek dio gizarte-eskalan goian dauden pertsonak gero eta etekin handiagoa ateratzen dietela aurrerapen teknologikoei, eta pertsona xumeenen aukerak, berriz, txarrak direla, ez baitituzte bere egin teknologia berriak eta ez baitute lortu haiei etekina ateratzea. Enpresa-sektore

McAfeeek TED konferentzia batean azaldu zituen bere argudioetako batzuk:

https://www.ted.com/talks/andrew_mcafee_what_will_future_jobs_look_like#t-515986


gehienek gero eta gutxiago behar dute eskulana balio erantsi handiko proiektuak egiteko, eta horrek betiko aldatuko du lanaren alorra eta soldaten banaketa. Gizarte-eskalan jada ez dago erdibideko bizimodu egonkor eta ziurra: erdi-mailako klasea desagertu egin da.

Horregatik da egokia eta garrantzitsua mintegian proposatutako lehenbiziko galdera: **Enpleguak ez al du jada ahalmen integratzailea? (termino sozioekonomikoetan).**

2. «Lana» diogunean, zer adierazi nahi dugu?

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da «lana» kontzeptuari berari buruz gogoeta egitea. Oro har, lana «enplegura» mugatzeko joera dugu, eta ez ditugu kontuan hartzen merkatuaren eta prezioaren galbahetik igarotzen ez diren jarduerak, eta jarduera horiek funtsezkoak dira gizartearen eta gizabanakoaren biziraupen sozial eta materialerako. Hau da, ez ditugu kontuan hartzen ezinbesteko garrantzia duten jarduerak eta zereginak, hala nola etxeko lana, zaintza-lana, boluntariotza-jarduerak, gizarte-gaietan parte hartzea, truke solidarioak...

Horregatik guztiagatik erabaki dugu «lana» izatea mintzagai mintegi honetan, gizartearen funtzionamendu egokia eta ongizate kolektiboa lortzen laguntzen duten giza jarduera guztiak bere baitan hartzen dituen kontzeptua den aldetik.



Iturria: Geuk egina.

Ekonomia eta soziologia feministak aitzindari izan dira gizartean ezinbestekoak diren lan horiek guztiak enpleguaren kategoriara mugatu izana salatzen. Izan ere, lan guztiak enplegura mugatuta, zenbait zeregin ikusezin bilakatu dira (generoaren eta klase-sozialaren arabera baztertuta beti), eta zeregin horiek gauzatzen diren tokian gauzatzen direnez, ugalketaren, harremanen, etxeko arloaren, arlo pribatuaren edo merkataritzakoa ez den arloaren eremukotzat hartu (baztertu) dira.

Sakontzeko:

M.a Á. Durán, *Ordaindu gabeko lana ekonomia globalean*.

http://www.fbbva.es/TLFU/dat/DE_2012_trabajo_no_remunerado.pdf

C. Carrasco, C. Borderías eta T. Torns, *Zaintza-lana; aurrekari historikoak eta gaur egungo eztabaidak*.

https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Economia_critica/El_trabajo_de_cuidados_C._Carrasco_C._Borderias_T._Torns.pdf

C. Carrasco eta M. Mayordomo, «Lana eta bizi-baldintzak: ikuspegi ez-androzentrikoa».


<http://www.caritas.es/imagesrepository/CapitulosPublicaciones/823/07%20TRABAJO%20Y%20CONDICIONES%20DE%20VIDA%20UNA%20MIRADA%20NO%20ANDOC%C3%89NTRICA.pdf>

C. Carrasco, «Emakumeak, iraunkortasuna eta gizarte-zorra».

http://www.revistaeducacion.mec.es/re2009/re2009_08.pdf

A. Pérez Orozco, *Ekonomiari buruzko subertsio feminista: kapitala-bizitza eztabaidarako ekarpenak*.

https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/map40_subversion_feminista.pdf



Iturria: <http://nomerecortes.blogspot.com.es/2015/01/economia-feminista.html>

Nolanahi ere, eta nahiz «lanaren» paradigma nagusiak ezin konta ahala ahultasun dituen, egia da haren mendeko jarduten dugula oraindik ere. Gaur egun oraindik ere enplegua duen herritarrari bakarrik esaten diogu «landun», eta enplegua ez duenari, berriz, «langabe», nahiz eta egun guztian ikasten eman, enplegua bilatzen aritu, beste pertsonak batzuk zaintzen eman, borondatezko jarduerak egiten jardun edo ekimen politikoetan parte hartzen aritu.

Gaur enplegua da oraindik ere merkatu-gizarteetan sartzeko mekanismo nagusia. Eusko Jaurlaritzak 1998ko maiatzean onartu zuen Gizarte Bazterketaren aurkako Legeak, zioen azalpenean, honela dio:

«Gure gizarte modernoan lana da gizartearen eskubideak eta betebeharrak eskuratzeko biderik hedatuena eta baita gizarteak pertsonarekiko gauza bere egiteko modua ere. Hori horrela izanik, lan egiteko eskubidea ezinbesteko eskubidea da oso-osoko herritar bihurtzeko, eta erabateko esanahia eskuratzen du, gainera, eskubide politikoaren artean».

Baina, oso-osoko herritar izateko baldintza lortu egin behar al da, bada? Hori ez al da gizarte totalitarioen berezko izugarrikeria? Bizitza duinerako eskubidea izateko lanerako eskubidea ezinbestekoa bada, zer gertatzen da milioika lagunek ezin badute bete behar hori bete, ez beren erruagatik, baizik eta egiturazko arrazoiengatik? Eta zer gertatzen da lan-baldintzak direla-eta milaka lagunek hiltzeko arriskupean lan egiten dutenean? Eta enplegurako gaitasuna jada ez denean autonomiarako bidea, baizik umiliazio-mekanismoa?

Kontua da enplegua hamarkada askotan izan dela autoerrealizazioa, emantzipazioa eta autonomia lortzeko modu normalizatua. Enplegua, halaber, gizabanakoa gizartearen onartua izateko oinarri praktikoa izan da.

«Guk “lan” esaten diogun hori modernitatearen asmakizun bat da. Ezagutzen dugun eran, gauzatzen dugun moduan, eta norbanakoaren bizitzaren zein bizitza sozialaren erdigunean jartzeko dugun eran industrialismoarekin batera sortu zen, eta gero orokortu egin da. “Lana”, gaur egun ulertzen dugun moduan, ez da nahasten egunez egun errepikatzen ditugun zereginekin, norberaren bizitzarako eta ugalketarako hain garrantzitsuak diren horiekin; ez da nahasten norberarentzat edo bere ingurukoentzat norbanakoak egiten dituen zereginekin, nahiz eta ezinbestean egin behar izan; ez da nahasten norberaren denbora eta ahalegina kontuan hartu gabe *motu proprio* egiten ditugunekin, nahiz eta norberarentzat baino ez izan garrantzitsuak, eta nahiz eta norberak eta ez beste inork gauzatu ezin dituen.

Halako jardueri buruzko lanaz mintzo garenean –“etxeko lanak”, “lan artistikoa”, autoprodukzioko “lana”– ez gara gizartea sortu zen unetik beretik lanari eman izan dion zentzu berean mintzo, funtsezko eta xede gorentzat hartzen baitzen lan hori.

Izan ere, lan honen –“daukagun”, “bilatzen” eta “eskaintzen” duguna– ezaugarri funtsezkoa da eremu publikoko lana dela, beste batzuek eskatzen, zehazten eta ontzat ematen dutena eta, beraz, beste horiek ordaintzen dutena. Ordaindutako lanaren bidez (eta bereziki soldatapeko lanaren bidez) gara eremu publikoko kide, eta hala lortzen dugu gizartean izana eta identitatea, (“lanbide” bat, alegia); hartu-emanen eta trukeen sare batean sartuta gaude, eta sare horretan besteekiko konparazioak egiten ditugu, besteekiko eskubideak ematen zaizkigu eta trukean haienganako betebeharrak eskuratzen ditugu. Gizarte-mailan ordaindutako eta zehaztutako lan hori denez, alde handiz, sozializatzeko faktore garrantzitsuena –lana bilatzen, lan egiteko prestatzen eta lanik ez duten pertsonentzat ere bai–, “langileen gizartetzat” hartzen da gizarte industrialia, eta, horrenbestez, aurretik izan diren guztietatik bereizten da.

Horrek esan nahi du gizarte-kohesioa eta herritartasuna sortzen dituen lana ezin dela lanera mugatu, kategoria antropologikoa den neurrian edo gizakiarentzat biziraupena lortzeko bekokiko izerdia premiazkoa den neurrian».

André Gorz, *Metamorfosis del trabajo*, Sistema, Madril 1995; 25-26. or.

XVIII. mendea iraultza handien mendea izan zen, gaur egun daukagun mundua den bezalakoa izatea eragin zuten iraultzena. Demokrazia eta kapitalismoa sortu ziren. Frantziako Iraultzaren ondoren etorri zen hainbesteko garrantzia izan duen

herritarren eskubideen adierazpena, eta, hala, politikoki onartuta, gizarte-loturako proiektu berritzaile baten ikur bilakatu zen: nazioa osatzen duten herritar guztien elkartasunaz osatutakotzat hartzen dira gizarte modernoak, herritar guztiak berdinak, askeak eta nazio bereko kide direla. Industria Iraultzak eta harreman sozial kapitalistak orokortu izanak gizarte-loturarako modu askoz ere prosaikoago bat eragin zuten eta, beharbada horregatik, arrakastatsuagoa: nork bere interesak lortu nahi dituen baina elkarrenganako beharra duten pertsona guztien elkartea.

Hala, lanaren etika jakin bat garatu zen, eta urteen joanean, etika horren printzipioen kutsua Mendebaldeko kultura moralean nabaritu zen, bereizketa ideologikorik gabe. Funtsezko printzipio bat oinarri hartuta *bizitzeko arau* bat sortu zen: lana da gizarte honetako partaide izateko bide normalizatua, eta gizarte horrek *quid pro quo* (gauza bat bestearen truke) du oinarri. Lana egiten dugulako ageri gara pertsona baliagarritzat besteen aurrean, eta, modu horretan, beharrezkoa den baina nork bere kabuz lortu ezin duen hori besteengandik jasotzeko eskubidea irabazten dugu. Lanari esker lortzen da trukeen sare erraldoi horretan sartzea, gizarte modernoan sartzea, alegia. Baina hori bai, Zygmunt Bauman pentsalariak gogora ekarri zuenez, «besteek balioa onartzen dioten lanak bakarrik du (soldataren edo ordainsariaren truke egiten den lanak, sal daitekeenak eta erosteko baldintzak betetzen dituenak) lanaren etikak goresten duen balio morala». Horrek esan nahi du enplegu esaten diogunera mugatzen dela benetako lan garrantzitsua.

Herritarren arteko hartu-eman, eta eskubideen eta betebeharren arteko lotura, hau da, komunitate moral bateko kide guztien artean garatzen zen lotura, ordeztu egin zen, produkzio-jardueren arteko loturarekin, merkaturako lanarekin. Horrenbestez, gizarte modernoetan elkarrekikotasuna da gizarte-loturaren oinarria, bai, baina lotura edo hartu-eman hori instrumentala, materialista eta indibidualista da.

Enpleguaren sozializazioaren, haren arau sozial eta krisiaren ikuspegiari gehiago sakontzeko:

Z. Bauman, *Trabajo, consumismo y nuevos pobres*, Gedisa, Bartzelona 2000.

I. Zubero, *El derecho a vivir con dignidad: Del pleno empleo al empleo pleno*, HOAC, Madril 2000.

Merkatu-gizarteetan sartzeko mekanismo nagusi, ia bakarra, bilakatu da enplegua. Ordaindutako lanaren bidez (eta bereziki soldatapeko lanaren bidez)

gara eremu publikoko kide, eta hala lortzen dugu gizartean izana eta identitatea, «lanbide» bat. Horrexegatik da lana, zentzu ekonomiko hutsean, bizimodua ateratzeko bitarteko bat baino zerbait gehiago: zentzu sozial batean ere ateratzen dugu bizimodua lanaren bidez, lan eginez hartu-emanen eta trukeen sare batean sartzen garelako, eta sare horretan besteekiko eskubideak ematen zaizkigulako eta, trukean, haienganako betebeharrak. Zer lan egin, hura bera gara ia herritar gehienak; are gehiago, *lan egiten dugulako* gara. Horrek eragiten du enplegua galtzeko aukeraren beldur izatea, edo, enplegua ez aurkitzearen beldur izatea. Enplegua galtzarekin batera aberastasunean parte hartzeko gizartean dagoen modu normalizatua galtzen dugu. Langabezia etxean sartzen denean, herritartasunak leihotik ihes egiten du.

3. Enpleguak ez al du jada ahalmen integratzailea?

Koaderno honen hasieran esan dugunez, lanaren egungo egoerari buruzko gogoeta proposatzearen arrazoia denon daukagun kezka bat da; zehazki, merkatuan lan egiteko moduaren eta gure enplegugaiaren beraren baldintzei aspaldidanik eragiten dieten zenbait prozesu sozial, ekonomiko eta teknologikok prekarietatera eraman gaitzaketelako kezka.

Nahiz eta aitortzen dugun enpleguak historian urte askotan bete duen funtzioa (eta oraindik ere betetzen jarraitzen du gehientsuenentzat), tresna izan den aldetik gizartean integratzeko, berrikuntzarako eta sormenerako, garapen ekonomikorako, eta aberastasuna sortzeko eta banatzeko, izugarri kezkatzen gaitu ikusteak zer norabide hartzen ari den lanmerkatua aspaldi samarretik, lan-baldintzak gero eta prekarioagoak baitira, eta prekarietate horrek ahuldu egiten du, eta sarritan indargabetu, enpleguaren ahalmen integratzailea.

8oko hamarkadaz geroztik, garrantzi handiko aldaketak gertatu dira, eta horien

Enpleguaren ahalmen integratzailearen krisiaz gehiago jakiteko:

1.o de Mayo fundazioa, *Langile pobreak eta pobretzea Espainian*.

<http://www.1mayo.ccoo.es/nova/files/1018/Estudio56.pdf>

A. Recio, «Lan egin, pobrezia eragozteko?».

<http://www.caritas.es/imagesrepository/CapitulosPublicaciones/823/03%20%C2%BFTRABAJAR%20PARA%20EVITAR%20LA%20POBREZA%20BF%20BAJOS%20SALARIOS%20EN%20EL%20MERCADO%20LABORAL%20ESPA%C3%91OL.pdf>

J. Zalakain, «Lana, langile pobreak eta gizarteratzea».

<http://www.caritas.es/imagesrepository/CapitulosPublicaciones/823/04%20TRABAJO,%20TRABAJADORES%20E%20INSERCI%C3%93N%20SOCIAL.pdf>

T. Crespo, *Lana: oraina eta geroa; prekarizazioaren areagotzea eta berriro gogoetarako gaitzat hartzeko ezinbesteko premia*.

<http://www.pensamientocritico.org/tercreo516.pdf>

M.a A. Davia, *Soldata txikiko enpleguen bilakaera Espainian*.

http://www.foessa2014.es/informe/uploaded/documentos_trabajo/16102014141914_694.pdf

ondorioz indargabetu egin da gizartean integratzeko oinarrizko elementu izan den *enpleguaren arau soziala*: enplegu egonkorra eta arautua, jarraia eta bizitza aktibo guztian, karrera profesionala osatu arte, irauten zuena.

Lan-merkatua *instituzio sozial* bat da. Lan egitea ez da, besterik gabe, ekoiztea edo lan-indarra saltzea. Arau sozialen esparru batean lan egitea da, eta arau horiek zehazten dute, besteak beste, zer den enplegua eta zer ez den, enplegu ona zer den eta zer ez den, langile ona izatea zer den, eta, horrez gain, lan-jarduera praktikan antolatzen duen lege-erregulazioen esparru batean lan egitea ere bada. Arau sozial hori da, hain zuzen, izugarri aldatu dena azken hiru hamarkadetan: hirurogeita hamarreko hamarkadara arte, araua egonkortasuna lortzea zen; eta laurogeiko hamarkadaz geroztik, joera prekarizazioa da.

Hala, adierazpide hauek entzuten dira: gizartea *hegoafrikartu* egin da (Gorz), Mendebaldea *brasildartu* (Beck) eta Iparraldea *hegoaldetartu* egin da (Gallino); hau da, prekarietatea, aldibaterakotasuna eta informaltasuna, hirugarren mundua esaten diogun horren ezaugarritzat hartzen ditugun horiek guztiak, mendebaldean errotu dira. Gaur egun, *normala* prekarietatea da, batik bat langileen belaunaldi berrientzat, –emakume, gazte eta immigranteentzat, batez ere– laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik lan-merkatuan sartu direnentzat.

«Prekariatua» deritzon hipotesiaz gehiago jakiteko:

Guy Standingi egindako elkarrizketa.

<https://www.youtube.com/watch?v=ctpR2fDzgv4>

«Oso gizarte-klase erradikala da “prekariatua”, bere burua abolitzeko bezain indartsua izan nahi duen bakarra».

<http://www.sinpermiso.info/printpdf/textos/el-precariado-es-una-clase-social-muy-radical-la-unica-que-quiere-ser-lo-suficientemente-fuerte-para>

Instituzio sozial horren testuinguruan, enpleguaren arau sozial berri hori nagusi den horretan, lan-merkatuaren funtzionamendu «normalak» eragiten ditu ziurgabetasunik handienak. Hain da hori hala, non Guy Standing ekonomistaren ustez, langile-mota berri eta paradoxiko bat sortu baita, prekariatua; hau da, forma anitzeko langileez osatutako gizarte-taldeari erreferentzia egiten

diona: aldi baterako langileek, lanaldi partzialeko kontratuko langileek, sasiau-tonomo bihurtutako langile azpikontratatuak, landa-eremuko zein zerbitzuetako sasoikako langileek, bekadun eta interinoek osatutako forma anitzeko gizarte-taldea. Horiek guztiek, nahiz eta heterogeneoak izan, herritar dimidiatu (*denizenship*) izana bera dute, eta lan ez-ziurrak dituztenez, ez daukate ez identitate bat, ez karrera bat eta ez bizitza-proiektu bat eraikitzeko aukerarik.

Hala, «prekarietatea, patu» (Castel) modu askotan egiten da ageriko, baina larriena gure lan-ingurunean duela oso gutxira arte ezezaguna izan den modua da: landun pobreak (*working poors*) esaten zaienak gero eta gehiago dira. Pertsona landunak dira, bai, baina dauzkaten baldintzak direla-eta pobrezia-itopuntua gainditzeko aukera ez dute. Ameriketako Estatu Batuetako lan-ereduko bereizgarri diren horiek Europan kasik pentsaezinak ziren duela gutxira arte; izan ere, landuna izatea eta pobrea izatea kontraesanean zeuden. Bada, 2010ean, *working poors* esaten zaienak Europako langileen %8 egiten zuten, eta Espainiari dagokionez, %12.

Garai batean, lanaren eta bazterketaren arteko muga garbi ikus zitekeen; egun, ordea, eremu lauso eta porotsua da: posible da pertsona batek lan egitea eta, aldi berean, bazterketa-egoeran egotea, bazterketa arina izan zein ez. Gero eta jende gehiago bizi da egoera ahulean, eta gizarteratuta eta baztertuta egotearen arteko muga-eremu hori gero eta zabalagoa da, lanaren prekarizazioaren ondorioz batez ere. Horrenbestez, horrek guztiak eragin du, batetik, zenbait gizarte-kategoriaren *ezegonkortasuna*, hala nola gazteena eta emakumeena, eta bestetik, *egonkor zeudenen egonkortasun galera*, lan-ordenan arazorik gabe integratuta zeudenetako batzuen (Castel).

Baldintza prekariotan sortzen ditugu enpleguak. Gaur egun, enplegu kualifikatua izateak ez du ziurtatzen enplegu duina. Gero eta premia-azkoagoa da ondo prestatua egotea eta malgua izatea, eta beti ez dator bat ordainsari handia jasotzearekin. Hona hemen horren ondorio zuzena: beldur gara eta edozein enplegu-mota onartzen dugu. Horrez gain, denok dugu, batik bat gazteek, eta herrialde batzuetan gehiago beste batzuetan baino, bizitza sozialetik eta ekonomikotik marjinatuta eta baztertuta gaudelako sentimendua.

R. Castel soziologoaren hiru testu:

«Egoera gisako bazterkatik, prozesu gisako ahultasunera».

[http://www.dwvalencia.com/claver/Documentos/exclusion\(robert_castel\).pdf](http://www.dwvalencia.com/claver/Documentos/exclusion(robert_castel).pdf)


«Prekarietatea egoera iraunkor bilakatu da».

http://www.psicologiagrupal.cl/escuela/index.php?option=com_content&view=article&id=226:la-precariedad-se-ha-vuelto-un-estado-permanente&catid=43:articulos&Itemid=69

«Gizarte-bazterketaren arriskuak egungo ziurgabetasun-egoeran».

<http://revintsociologia.revistas.csic.es/index.php/revintsociologia/article/view/584/610>

Europako 16 eta 30 urte bitarteko gazteek bizitza sozial eta ekonomikotik baztertuta eta marjinatuta daudelako duten sentimendua



Iturria: R. Lasheras eta B. Pérez Eransus: http://www.foessa2014.es/informe/uploaded/documentos_trabajo/15102014151419_4914.pdf
Eurobarometroaren datuak (2014).

M. Carnoy eta M. Castells, *Sustainable Flexibility: Prospective Study on Work, Family, and Society in the Information Age*.

[http://search.oecd.org/officialdocuments/displaydocumentpdf/?cote=OCDE/GD\(97\)48&docLanguage=En](http://search.oecd.org/officialdocuments/displaydocumentpdf/?cote=OCDE/GD(97)48&docLanguage=En)

Ziurtasun-gabeziaren ekonomia politikoa (Beck) gero eta nabariago den esparru honetan, gero eta pertsona gehiago bizi dira laneko zein gizarteko eskubideen etorkizunaz kezkatuta, eta kontrolik gabe dirudien bilakaera ekonomiko eta sozial baten barruan daudelako sententzioarekin.

Horren harira, Martin Carnoy eta Manuel Castells ekonomialari eta irakasleek, ELGERentzako txostena egin zutenean informazioaren aroan lanak, familiak eta gizarteak zuen etorkizunaz gaitzat hartuta, ondorio hau atera zuten: «Ekonomia bereziki dinamiko, malgu eta produktibo baten ikuspegiarekin batera, gizarte ezegonkor eta ahula, eta goraka ari den segurtasun falta indibiduala nabaritu dugu egindako analisisian».

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) urte asko daramatza ohartarazten, txostenen bidez, enplegu egonkorra eta lanaldi osokoa zena baldintza prekarioak oinarri dituen lan-eredua bilakatzen ari dela. Hiru alderdiko erakunde horrek lan duinari, produktiboaren eta eskubideak errespetatuko dituen lanaren alde estatuak, sindikatuak eta enpresa-erakundeek berengain hartutako konpromisoari eustea xede du. Horrek «Lanaren etorkizunari buruzko urteurrenako ekimen» jarri zuen abian 2016an, bere egitekoa egungo lan egoera aldatokorrera egokitzeko.

LANEren lanaz gehiago jakiteko:

Lanaren etorkizunari buruzko urteurrenako ekimena.

http://www.ilo.org/ilc/ILCSessions/104/reports/reports-to-the-conference/WCMS_370408/lang-es/index.htm

Lanaren etorkizunari buruzko informazio-oharrak.

<https://www.oitcinterfor.org/node/6975>

Lan prekariotik lan duinerako jauzia.

http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@ed_dialogue/@actrav/documents/meetingdocument/wcms_179789.pdf

4. Ba al dago enplegua ez den beste integratzaile sozioekonomiko unibertsalik? Ba al dago gizarte-integrazioa bultzatu edo sustatuko duen beste lan egiteko modurik?

Lanaren eta enpleguaren arazoari aurre egiteko egungo ikuspegia aldatzeko premia nabarmena da. **Zein dira aldaketa-prozedura giltzarriak?** Erraz barneratzen dugu metaketaren logika, eta egin behar duguna da identifikatu zer logika menderatzailek eragiten duten enplegua prekarizatzea eta eragozten duen arazoei aurre egiteko ikuspegia aldatzea.

Horren harira, kontuan izan behar da egun baliatzen ditugun diagnostikoez eta egiten ditugun aurreikuspenek betiko ikuspegia dutela oinarri, eta horregatik da oso zaila enplegu inklusiboa sortzea, diagnostiko eta aurreikuspen horiek baitira nagusi.

Jakin badakigu enpleguaren zentzuaz berriz pentsatu behar dugula: behar-beharrezkoa da enpleguaren funtzioari buruzko beste ikuspegi bat.

Egiten dugun lana aitortzen digute, baina aitortzen hori iragankorra da, helburuak lortzearekin lotuta baitago: Zer egin duzu? Zenbat ekoitzi duzu? Enpleguaren eta ordainsariaren arteko lotura horren bidez lana merkantilizatzeak berekin dakar pentsaezina izatea lana gizakiok onartzeko bitarteko bat dela. Lana galbidera daramaten dinamika horiek baztertzen asmatzen ez badugu, zaila

«Aro Modernoak berekin ekarri zuen lanaren gorespen teorikoa, eta horrek eragin du gizarte guztia lanaren gizarte bilakatzea. [...] Lanik ez duten langileen gizartean bizi gara; hau da, ez daukate dagokien jarduera bakarra. Argi geratu da, ez dago hori baino gauza okerragorik».

Hannah Arendt, *La condición humana*, Paidós, Bartzelona 1993, 17.or.

egingo zaigu aldaketak sortzea eta gizakiak gizarteari egiten dizkion ekarpenak lanaren bidez aitortzea.

Taldeari segurtasuna emango dioten sistemak sortu behar ditugu, pertsona guztiak premia horretatik aske bizi daitezen, pertsona izate hutsagatik. Kontua ez da berdin bizi gaitzen lortzea, baizik eta premia hori gabe aske bizi gaitzen lortzea. Eta sistema horiek ikuspegi globala izan behar dute. Nola sortu taldeari segurtasuna emango dioten sistema horiek, jendeak aukeratu ahal izan dezan lan egitea, enplegua edukitzea, beste mota bateko jarduerak garatzea eta abar? Nola eman jauzia merkatuko enplegutik komunitatean lan egitera, jarduera zibikoak egitera, jarduera publikoak gauzatzea eta antzekoetara?

Baina, zera: Nola igaro egungo egoeratik lortu nahi dugun etorkizun hobera? Ba al dugu nahikoa denbora halako erabakiak hartzeko?

Mintegian ez dugu aukera horietan sakontzerik izan; eta haiei buruz ezer erabakitzeko asmorik ere ez. Baina denok bat etorri gara instituzioen egitekoan **politika** giltzarri delako iritzian.

Ekonomiak testuinguru instituzionala behar du: ez dago aurrera egingo duen lan-merkatuak, testuinguru instituzional batek babesten ez badu. Eta horrek hala izan behar du ezinbestez, merkata instituzio sozial bat delako. Jarduera ekonomiko orok funtzionatzen du ingurune sozialetan eta instituzionaletan eta, ikuspegi horretan oinarrituta, enpresa guztiek egin behar dute ekarpen soziala. Berebiziko garrantzia du jarduera jakinak gauzatzea (errenta-bermeak, garapen endogenoa, enpleguaren banaketa, soldataren birbanaketa, etab.), baina, azken batean, **politika** kontua da. Eta politika zentzurik garbienean:

- politika, interesen konfrontazio demokratikoko jardueratzat hartuta;
- politika, komunitate politikoarekiko (*polis*) harremantzat hartuta: elkar ulertu beharra dugu, pertsona guztiak komunitate politiko bereko kide garen aldetik.

A) Badira lan-merkatuaren egoerarekiko esku-hartze zuzen eta berehalakoekin zerikusia duten aukerak:

- Lana banatu, enplegua banatu eta soldata birbanatu.
- Lan ziurreko proposamenak egin.
- Errentak bermatu: oinarrizko errenta unibertetsala, diru-sarrerak bermatzeko errenta...

Ordaindutako lana banatzeari dagokionez, proposamen interesgarri eta garatuenetako bat New Economics Foundation erakundearena da (<http://neweconomics.org/>).

Ikuspegia

Ordaindutako lanordu askoz ere gutxiago egitea modu bat da egungo askotariko krisiei aurre egiteko. Ahalmen ekonomikotik harago eta baliabide naturalen mugetatik harago kontsumitzen dugu gutako gehienok, baina, hala ere, gure ongizatea ez da hobea inondik ere; bien bitartean, beste batzuk pobrezian eta goseak bizi dira. Diru-sarrera handiko herrialdeen etengabeko hazkunde ekonomikoak eragingo du ezinezkoa izatea karbono-isuriak murrizteko premiazko helburuak lortzea. Desberdintasunak gero eta handiagoak dira, ekonomia globala porrot egiten ari da, baliabide naturalak kezkatzeko moduan urritzen ari dira eta klima-aldaketa, berriz, bizkortzen; horiek guztiek, besteak beste, zibilizazioaren etorkizuna arrisku larrian jarri dute.

21 orduko lan-aste «normala» oso lagungarria izan daiteke elkarri lotuta dauden premiazko arazo batzuei aurre egiteko: gehiegizko lana, langabezia, neurrigabeko kontsumoa, izugarritzko karbono-isuriak, ongizate eskasa, desberdintasun kentsolidatuak, bai eta bizimodu iraunkorra egiteko denbora falta, besteengana-ko kezka eta, besterik gabe, bizitzaz gozatzea ere.



http://www.slowpeople.org/docs/21horas_web.pdf

Puri-purian dagoen beste hausnarketagai eta proposamena errenta bat bermatzea da, pertsonaren lan-egoera edozein dela ere (edo hain kontuan hartu gabe). Badira, halaber, lan egin dezaketen eta lan egin nahi duten baina lan-merkatuan lanbiderik aurkitzen ez duten pertsona guztiei bitarteko publikoen bidez enplegu bat bermatzea proposatu dutenak ere. Ondo hausnartutako proposamenak dira horiek guztiak, oso eztabaidatuak ere bai, eta aintzat hartu beharrekoak, apriorismorik gabe.

«Gutxieneko errenta bermatua? Oinarrizko errenta? Lan bermatua?».

<http://especiales.publico.es/publico-tv/espacio-publico/513714/renta-minima-garantizada>

«Gutxieneko errenta bermatzearen alde: gizarte-babeseko sareak osatzea ezinbestekoa da».

<http://www.espacio-publico.com/por-una-renta-minima-garantizada-completar-las-redes-de-proteccion-social-una-necesidad>

E. Garzón, «Lan bermatua: enplegurik ez egoteak ez du esan nahi lanik ez dagoenik».

http://www.eldiario.es/zonacritica/Trabajo-garantizado-empleo-quiere-trabajo_6_331476866.html

E. Garzón, «Oinarrizko errenta unibertsalaren aurkako eta lan bermatuaren aldeko zazpi argudio».

<http://www.lamarea.com/2014/08/13/siete-argumentos-en-contra-de-la-renta-basica-universal-y-favor-del-trabajo-garantizado/>

D. Raventós, J. Arcarons eta L. Torrens, «Oinarrizko errentaren aurkako zazpi argudio? Ez, zehazki».

<http://www.sinpermiso.info/printpdf/textos/siete-argumentos-en-contra-de-la-renta-bsica-no-exactamente>

SIIS, «Oinarrizko errenta unibertsala behar al du Euskadik?».

http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Necesita_Euskadi_renta_basica_universal.pdf

D. Raventós, J. Arcarons eta L. Torrens, «Oinarrizko errenta unibertsala behar al du Euskal Autonomia Erkidegoak? Bai, jakina. Eta harago ere bai».

<http://www.redrentabasica.org/rb/necesita-la-comunidad-autonoma-vasca-una-renta-basica-universal-si-por-supuesto-y-mas-alla/>

B) Badira tokiko ekonomia, nekazaritzako ekonomia eta ekonomia sozial eta solidarioaren defentsarekin zerikusia duten aukerak ere.

Aintzakotzat hartzea ekonomia anitza izan daitekeela eta aniztasun horretan ekonomia soziala ere aukera bat dela: posible da beste esparru ekonomiko baten alde egitea. Esate baterako, kooperatibek enpresa transnasionalek sortzen dituzten enpleguen halako bi baino gehiago sortzen dituzte eta, hala ere, enpresa transnasionalek agintzen dute agenda ekonomikoan. Kooperatibek hainbesteko ahalmena izanik, zergatik ematen zaie hain garrantzi txikia? Legeek eta erabaki politikoek beste norabide bat daramatelako.

C) Eta lana desmerkantilizatzearekin zerikusia duten aukerak ere bai: enpleguaren eta lanaren giza jarduera berriro zehaztea. Horrek zuzeneko lotura du elkartasun-sareekin, ondasun kolektiboekin... Oraingoz, gutxien garatu diren

aukerak dira, baina aldaketa interesgarri baten bidea ireki dute.

D) Eta jakina, kontuan hartu behar da egun ditugun enplegu-arazoak (zalan-tzarik gabe larriak eta kezkarriak) etorkizunean konpondu ahal izan daitezkeela **teknologiaren garapenari esker edota gizarte-alorreko prozesuei esker, hala nola jaiotza-tasak behera egin eta, horren ondorioz, biztanleria aktiboen kopuruak ere behera egiten badu**. Gehiegizko baikortasuna alde batera utzita, historian antzeko egoerak gertatu dira lehen ere (trantsizio teknologikoak, krisi ekonomikoak, industria-iraultzak, lanbideak eta ogibideak zaharrituta geratzea...). Nahiz eta mintegian ikuspegi hori ez den txalotuena izan, aukera hori ere jaso beharrekoa da.

Eta orain, hona hemen mintegiko bigarren aztergai nagusia: posible al da enplegua sortzen jarraitzea (zentzu nagusian hartuta enplegua) justizia globala kontuan hartu gabe? (termino sozialetan eta ingurumen-terminotan).

Ondasun kolektiboen ikuspegiari buruz gehiago jakiteko:

Ondasun kolektiboak: kolektiboa denaren kultura eta praktika.

http://www.caritas.es/publicaciones_compra.aspx?Id=4563&Idioma=1&Diocesis=1

Gehiago jakiteko:

Rainer Strack, *La sorprendente crisis laboral del 2030... y como empezar a resolverla ya*

https://www.ted.com/talks/rainer_strack_the_surprising_workforce_crisis_of_2030_and_how_to_start_solving_it_now?language=es

Ildo baikor horren hari beretik gogoeta egiten jarraitzeko:

David Autor, «Will automation take away all our jobs?».

https://www.ted.com/talks/david_autor_why_are_there_still_so_many_jobs#t-55249

Telefónica Fundazioa, Lana, sistema adimenduen munduan.

https://www.fundaciontelefonica.com/arte_cultura/publicaciones-listado/pagina-item-publicaciones/itempubli/467/

World Economic Forum, The Future of Jobs: Employment, Skills and Workforce Strategy for the Fourth Industrial Revolution.

http://www3.weforum.org/docs/WEF_Future_of_Jobs.pdf

5. Posible al da enplegua sortzen jarraitzea justizia globala kontuan hartu gabe? (Termino sozialetan eta ingurumen-terminotan)

Eta kontua ez bada nola sortu enplegu gehiago, baizik eta nola irudikatzen dugun eta eraikiko dugun bizitzaren beste etika bat?

Egungo ekoizpen-, kontsumo – eta garraio-moduak, eta gure bizimodua orokorrean sostengaezinak dira. Horren haritik, *Azken deia* manifestuak honela dio (<https://ultimallamadamanifiesto.wordpress.com/el-manifiesto/manifestua-euskeraz/>):

«Harrapatuta gaude dinamika zital batean: gure zibilazioa hazten ez bada, ez dabil, eta hazten bada ere, berau posible egiten duten oinarri naturalak suntsitzen ditu. Gure kultura teknozale eta merkatuzaleak ahaztu egiten du gu, erotik, ekosistemen eta elkarren dependiente garela».

Nahikotasunaren gaia berreskuratu behar dugu: zenbat da nahikoa? Gaur egun, Iparraldeko herrialdeak ugaritasun-maila gorenean gaude. Hau da, ez gabeziaren egoeran ari gara gogoeta egiten, kapitalismoak ahalmen izugarria baitu ekoizteko, aberastasuna sortzeko. Pentsatu behar duguna da nola birbana dezakegun daukaguna eta nola sor dezakegun behar beste mundu guztiarentzat. Jakin badakigu ekonomia hazteak ez dakarrela berekin pobrezia murriztea eta enplegu duina sortzea.

Premiei buruzko beste ikuspegi bat behar dugu, termino antropologikoetan.

T. Jackson, *Prosperidad sin crecimiento. Economía para un planeta finito*, Icaria, Bartzelona 2011.

TED konferentzia webgune honetan: <https://www.youtube.com/watch?v=GEULM8s27lc>

Gure gizarteetan kolapso soziala gerta daiteke, ez baliabidegabeziagatik, baizik eta baliabideak gaizki banatzeagatik. Gizarteentzako funtzionamendua hobea da ez gehiago dutenean, baizik eta gehiago eta hobeto birbanatzen dutenean.

Behar-beharrezkoa da ikuspegia aldatzea arazo horri aurre egiteko. Erraz barneratzen dugu metaketaren logika. Nola identifikatu zer logika menderatzailek eragiten dituzten arazo horiek eta arazo horiei aurre egiteko darabilgun ikuspegia, ikuspuntua?

6. Gogoetan eragina izan duten tirabirak

Koadernoan amaitzean, ohartu gara mintegiko saio guztietan izan dugula eredu ekonomikoaren inguruko **tirabirarekin** zerikusia duen konstante hau: **arindu/erreformatu edo aldatu/eraldatu**. Helburua zein da, sistema eragin duten nahasmenduei konponbidea ematea ala sistema aldatzea?

- Utopikoaren eta pragmatikoaren arteko tirabira,
- hazkundearen eta birbanaketaren arteko tirabira,
- egungo egoerari beste modu batean aurre egiteko premiaren eta pentsamendueskema zaharkituei buruzko tirabira.

Enpleguari dagokionez, tirabira hori gai hauei buruzko desberdintasunetan egin da ageriko:

- Lana pertsona onartua izateko elementu bat da, etorkizuna eraikitzen, garatzen eta gizartean leku bat edukitzen laguntzen duena. Hala ere, egiaztatu dugu enplegua oraindik ere eskubideak baliatzeko bidea dela, eta hori arazo bat da, mundu guztiak ez baitu egun lan duina. Enplegua gainerako eskubideak baliatzeko mekanismoa den neurrian, arazo bat dugu. Eta arazoa da gaur egun eskubide guztiak enpleguaren baitan eta diru-sarrerak sortzearen baitan daudela.
- Egiaztatu dugu, halaber, lanak baloratzeko modu bat baino gehiago daudela; hau da, gauza batzuek balio handia dute eta beste batzuek, berriz, oso gutxi: maitasuna, konpromisoa... Bizitza merkatuaren alorretik kanpo nahiago dugu. Merkatua bizitzaren zati den giza instituzio bat da, baina gure bizitzan ez da hori dena. Nola lor dezakegu merkatua bizitzaren zati bat bakarrik izatea?

Zenbait gauza ekonomiaren alorretik kanpokotzat hartu behar ditugu; kontua da hori nola lortu. Merkantilizatu gabeko ondasun – eta zerbitzu-sistema bat behar dugu. Salgaitzat hartu ezin diren gauza asko daude, eta inoiz ez lukete izan behar merkatuaren alorrekoak: maitasuna, besteen onarpena, lurra, lana, dirua... Enpleguak sortzen ditugu, bai, baina ondasun materialak ekoizteko. Eta ez diegu garrantzia ematen, ordea, benetako garrantzia duten lanei, ugalketarekin eta bizitza zaintzarekin zerikusia duten lanei.

- Teknologia aurrerapenerako aukera ematen duela jakin badakigu, baina kezka eragiten digute, halaber, etekin ekonomikoaren logikak agintzen duen garapen teknologikoak gure bizitzan ekarriko dituen ondorioek. Teknologia lan-aukerak eman diezazkiguke. Eta, aldi berean, teknologia funtsezkoa da ekoizpenerako eta ugalketarako, baina kontu handia izan behar dugu, oso eragin handia baitu, egun, lan-merkatuak segmentutan banatzeko. Teknologia eskuragarri ez edukitzea bazterketa-faktore bat da: teknologia erabiltzeko gaitasunak eskuratu behar dira.